

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Amurrio Bidean plantillako lanpostua jabetzan betetzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak onartzea

Amurrio Bidean SAUko Administrazio Kontseiluak (Amurrioko Udalaren Toki Garapenerako Elkarte), azaroaren 24an eginiko bileran, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Onestea Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 20/2021 Legearen 6. Xedapen Gehigarritik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdiko hautaketa-prozesuari aplikatuko zaizkion oinarri orokorrak (I. eranskina), nahiz eta aurrekontu-zuzkidura izan, Amurrio Bideaneko plantillan 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik behin-behinean eta etengabe bete diren plazak jabetzan hartzeko. Hautaketa-prozesua lehiaketa-sistemaren bidez eratuko da.

Bigarrena. Onestea hautaketa-prozesuaren deialdia eta hura arautuko duten berariazko oinarriak (II. eranskina), 2022 ekitaldirako onartutako enplegu publikoaren eskaintzan dagoen plaza huts hau betetzeko:

Aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriari dagokion plaza, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. Xedapen Gehigarrian (iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdia) aurreikusitakoaren arabera.

- Enpresetako teknikari 1 plaza, A2 taldea, txanda irekian.

Amurrio, 2022ko azaroaren 24a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA

I. ERANSKINA**OINARRI OROKORRAK****LEHENENGOA.- OINARRIEN XEDEA**

Oinarri hauen xedea da enplegua egonkortzeko ezohiko hautaketa-prozesua arautuko duten arau orokorrak ezartzea, Amurrio Bideaneko plantillan plaza bat hornitzeko.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 20/2021 Legearen 6. Xedapen Gehigarritik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdiko hautaketa-prozesuari aplikatuko zaizkio, baldin eta plaza hori, nahiz eta aurrekontu-zuzkidura izan, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik behin-behinean eta etengabe bete bada. Hautaketa-prozesua lehiaketa-sistemaren bidez eratuko da.

BIGARRENA.- TRATU-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA

Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartzen duen Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. eta 9. artikuluetan ezarritakoarekin bat, deialdiek tratu-berdintasunaren printzipioa beteko dute, bereizkeriarik egin gabe jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bestelako baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik, baldin eta tratu bereizia kasu justifikatu, zentzuzko, proportzional eta kongruenteetan oinarritzen duen arauen batek babesten ez badu.

HIRUGARRENA.- PLAZAREN DESKRIBAPENA

Plaza dagokion deialdiaren berriazko oinarrietan deskribatuko da.

I- ENPLEGUA EGONKORTZEKO EZOHIKO PROZESUAREN ARAUAK**LAUGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK****1. Betekizun orokorrak**

Deialdiaren xede den plazan sartu nahi dutenek parte hartzeko betekizun orokor hauek eta dagozkion berriazko oinarrietan adierazitakoak bete beharko dituzte:

a) Europar Batasuneko estatu kide bateko **nazionalitatea** izatea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu dakiokkeen estaturen bateko nazionalitatea izatea.

Halaber, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude. Halaber, baldintza berberetan, parte hartu ahal izango dute bien ondorengoei, hogeita bat urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanda mendeko pertsonak badira.

b) **Gaitasuna**: Zereginak egiteko gaitasun funtzionala edukitzea, hau da, deitutako plaza dagokien lanpostuaren funtzio eta zereginak behar bezala egiteko gaitasun psikofisikoa edukitzea eta bere desgaitasuna zeregin horiekin bateragarria izatea.

c) **Adina**: Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, ez gainditzea nahitaezko erretirorako gehieneko adina, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren 56. artikulua arabera.

d) **Gaikuntza**: Diziplina-espeditu bidez ez egotea bananduta Administrazio Publikoaren edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoen zerbitzuetan, edo ez egotea enplegu edo kargu publikoak edota funtzionario-kidego edo -eskalak betetzeko gaitasunik gabe ebazpen judizialen bidez, modu absolutu edo berezian.

Beste estatu bateko nazionala izanez gero, ez egotea gaitasunik gabe edo egoera baliokidean, ezta bere estatuan enplegu publikoan baldintza berberetan sartzea eragozten dion diziplina-zigorrik edo baliokiderik edukitzea.

e) **Titulazioa**: Deialdi bakoitzaren berariazko oinarrietan eskatzen den titulazioa izatea.

Atzerrian lortutako titulazioa duten izangaiek egiaztatu beharko dute baliozkotze egokia edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea.

F) **Ezgaitasuna edo bateraezintasuna**: Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; hala ere, kargu publiko bat edo jarduera pribatu bateraezin bat betetzen ari direnek aipatutako lege-arauetan xedatzen den aukera-eskubidea baliatu ahal izango dute.

g) Hautaketa-prozesu bakoitzerako berariazko oinarrietan zehazten den beste **edozein**.

Deialdian parte hartu nahi dutenek betekizun guztiak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean. Era berean, betekizun guztiak bete beharko dituzte hautaketa-prozesuan zehar, kontratua formalizatu arte, gaitasun funtzionalari buruzko b) atalean ezarritakoa izan ezik: kasu horretan, zerbitzu medikoek egiaztatu beharko dute, kontratua sinatu baino lehen. Hala eta guztiz ere, prozeduraren edozein unetan Epaimahaiak jakiten badu izangairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzak, deialditik kanpo geldituko da, alde aurretik interesdunari entzun ondoren, eta, egun berean, epaimahaiak horren berri emango dio hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintariari.

Betekizunen bat ezarrita duten lanpostuak betetzeko, izangaiek ezinbestez egiaztatu beharko dute betekizun horiek betetzen dituztela. Betekizun horiek deialdi bakoitzaren berariazko oinarrietan zehaztuko dira.

Deitutako plazei lotutako lanpostuen berariazko eskakizunak deialdi bakoitzean zerrendatuko dira.

Lanposturen batek espezialitate jakin bat izateko betekizuna izaten badu, deialdien berariazko oinarriek zehaztuko dute nola egiaztatu.

2. Datuen babesa

a) Oinarri hauen xede den edozein hautaketa-prozesutan parte hartzeak berez dakar izangaiaik baimena ematea:

- eskarian jasotako bere datu pertsonalak –izen-abizenak, NANA eta prestakuntza maila– erabil daitezten aldizkari ofizialetan, iragarki-taulan, webgunean eta, orohar, hautaketa-prozesuaren behin-behineko edo behin betiko emaitzak komunikatzeko erabilitako beste edozein bitartekotan argitaratzeko.

b) Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuak publikotasun printzipioak arautzen ditu; beraz, eskaria ez da onartuko, baldin eta izangaiaik bere datuak ematea onartzen ez badu aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako.

c) Izangaiaik emandako datuak fitxategi batean sartuko dira. Fitxategi horren organo arduraduna Amurrio Bidean SAU da.

e) Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte; horretarako, idatzi bat igorri beharko dute honako helbide honetara: Amurrio Bidean Juan de Urrutia Plaza z.g., Amurrio 01470.

BOSGARRENA.- ESKAERAK ETA ONARPENAK

1. Eskaerak betetzea eta aurkeztea

a) Eskaerak eredu ofizialean bete eta aurkeztu beharko dira. Eredua Amurrio Bidean webgunean (www.amurriobidean.org) eta bulegoetan (El Refor, z.g. 01470 Amurrio Araba) dago eskuragarri.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dira.

b) Eskaerak Presidentetzari Aurkeztuko zaizkio **hogei egun balioduneko epean**, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

c) Eskeraren atal guztiak bete beharko dira, deialdiaren berariazko oinarrietako jarraibideen arabera. Eta horietan adierazi beharko da deialdi bakoitzaren oinarri orokorretan eta berariazkoetan eskatzen diren betekizun guzti-guztiak betetzen direla.

Izangaiek alegatutako merezimenduak zerrendatzen dituen adierazpena atxiki beharko diote eskaerari.

Ezingo dira baloratu eskaerak aurkezteko epearen barruan alegatu ez diren merezimenduak.

Alegatutako merezimenduen egiaztatziaren kopia arrunta atxikiko da.

d) Eskaera ez bada zehaztutako epe eta moduan aurkezten, izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geldituko da.

e) Eskaerako okerrak eta akatsak konpontzea: eskaeran egitatezko okerrak edo oker materialik edo aritmetikorik antzemanaz gero, edozein unetan konpon daitezke, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat, eskaeretan akatsak badaude, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko epean horiek zuzentzeko. Halaber, adieraziko zaio hori egin ezean, atzera egin duela ulertuko dela eta eskaera artxibatu egingo dela bestelako izapiderik egin gabe.

2. Eskatzaileak onartzea

a) Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, Presidentetzaren ebazpenaren bidez onartuko da izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda. Zerrenda horietan honako datu hauek agertuko dira: izangaiei izena eta bi abizenak eta nortasun-agiri nazionalako 4. zenbakitik 6.era, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia eta, eskaeran dauden akatsak edo omisioak zein kasutan zuzendu behar diren.

Ez da konponduko esakera epez kanpo aurkeztea edo alegatutako merezimenduen adierazpenean akatsak edo omisioak egotea.

b) Ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da eta Amurrio Bidean SAUren webgunean jarriko da ikusgai (www.amurriobidean.org), eta 10 egun balioduneko epea emango da ez onartzearen aurkako erreklamazioa aurkezteko eta ez onartzea eragin duten akatsak edo dokumentuak zuzentzeko. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, Presidentetzak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko beste ebazpen bat emango du, eta behin-behineko zerrenda argitaratutako moduan argitaratuko da.

c) Onartuen eta baztertuen zerrenda onartuko duen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahaliko da Amurrio Bidean Presidentetzaren aurrean,

hilabete bateko epean, zerrendak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3. Jakinarazpenak

Izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, hautaketa-prozesuan egin behar diren iragarki guztiak Amurrio Bideanen iragarki-taulan eta webgunean (www.amurriobidean.org) argitaratuko dira.

Jakinarazpenak eskaeran adierazitako helbidean egingo dira, baldin eta geroago deialdia egin duen organoari berariaz eta modu frogagarrian beste helbideren bat jakinarazten ez bazaio.

SEIGARRENA.- KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIA

1. Osaera

a) Deitutako hautaketa-prozesuko Kalifikazio-epaimahaia honako hauetan xedatutakoaren arabera osatuko da: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikulua; ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikulua; Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legearen 31. artikulua; Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 127.1.h) artikulua; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Euskal Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 b) artikulua.

B) Epaimahaia presidentetzak, idazkariak eta deialdiak zehaztutako kopuruaren arabera kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Osaera nagusiki teknikoa izango da, eta espezialitate-printzipioak zehaztuko du; beraz, kide guztiek deitutako plazak betetzeko eskatzen den maila akademikoko edo maila handiagoko titulazioa izan beharko dute, eta, gutxienez, kideen erdian titulazioak hornitu behar den plazaren ezagutza-arlo berekoa izan beharko dute. Gainera, gutxienez sexu bakoitzak %40ko ordezkaritza izango du, betiere ez bada horren desegokitasuna justifikatzen.

c) Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, ez baitu botoa izango. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, presidentetzaren botoak ebatziko du.

d) Epaimahaiko kideek, presidentetzari jakinarazi ondoren, ez dute esku hartu beharko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak daudenean, eta izangaiek ezetsi ahalko dituzte aipatutako Legearen 24. artikulurekin bat, aurreko artikuluan aurreikusitakoa gertatzen denean.

e) Ezin izango dira epaimahaikide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaketa-prozesuetarako izangaiak prestatzeko lanak egin dituztenak, edo aldi horretan deialdiaren xede diren lanpostuetako arlo funtzional bereko oposizioak prestatzeko zentzoren batekin lankidetzan aritu direnak.

f) Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izenen zerrenda ALHAOn argitaratuko da, hautaketa-prozesurako izangai onartu eta baztertuen zerrendekin batera, presidentetzak izendatu ondoren.

2. Eraketa

a) Epaimahaia ezin izango da eratu eta ezingo du jardun baldin eta ez badira bertaratu, gutxienez, presidentetza, idazkaria eta gainerako kideen erdia (titularrak edo ordezkoak).

b) Epaimahaia, egoki baderitzo, aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu hautaketa-prozesuko probaren batean edo guztietan. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 31.3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz; aholkuak eta laguntza teknikoa eskainiko dute beren espezialitate teknikorako, eta hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez, ordea, botoa emateko eskubidea.

c) Presidentetza karguak betetzen dituztenak ez badaude, kargu horren titularra denak bere ordezkoa izendatuko du boto-eskubidea duten kideen artean eta, halako izendapenik ez badago, adin handieneko kideak ordezkatu du.

d) Presidentetzak hautaketa-prozesua koordinatuko du, eta bozketetan egon daitezkeen berdinketak ebartziko ditu, kalitatezko botoarekin. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, horrek hitza izango baitu, baina botorik ez.

e) Izangaien kopuruak hala eskatzen duenean, Kalifikazio-epaimahaia administrari eta zerbitzuetako laguntzaileak izendatu ahal izango ditu, behar besteko kopuruan, idazkariak gainbegiratuta, hautaketa-prozesua behar bezala garatzen dela bermatu ahal izateko.

f) Epaimahaikideek eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten aholkulariek edo espezialistek, beren egitekoak betetzean, intimitaterako eskubidea eta izangaiekiko errespetua eta begirunea bermatu beharko dituzte, eta haietako bakoitzari buruz jasotako informazioa behar bezala tratatzen dela zaindu beharko dute.

g) Epaimahaia ahalmena izango du hautaketa-prozesua behar bezala antolatzeke eta garatzeko behar diren erabakiak hartzeko, deialdia arautzen duten oinarrietan aurreikusi ez den guztian, eta haren interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren auzi guztiak ebazteko, bai eta bere funtzioak betetzeko ere. Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Amurrio Bideanen Presidentetzari legez ezarritako epean, ebazpena iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

h) Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak Amurrión izango du egoitza, Amurrión Bideaneko erregistro orokorraren helbidean (gaur egun, El Refor kalea z.g.).

3. Epaimahaiaren ebazpena

Kalifikazio-epaimahaiak emandako ebazpena loteslea izango da izendapena egiteko eskumena duen organoarentzat. Hala ere, organo horrek berrikusi egin dezake ebazpen hori Legean xedatutakoaren arabera.

ZAZPIGARRENA.- DOKUMENTUAK AURKEZTEA

a) Dokumentuen zerrenda

Langile lan-kontratudun finko bihurtzeko proposatutako pertsonak Amurrión Bideanen aurkeztuko ditu deialdiaren oinarrian hautaketa-prozesuan parte hartzeko zerrendatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentuak, 20 eguneko epean, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.
2. Kargu publikoak betetzeko gaitasun gabetuta ez dagoela eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik bananduta ez dagoela dioen adierazpena.
3. Administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak aurreikusten dituen bateraezintasun zioeren batean ez dagoela dioen adierazpena.
4. Amurrión Bideaneko mediku-zerbitzuek egindako osasun-ziurtagiria. Bertan izangaiak funtzioak normaltasunez garatzea ezinezkoa egiten duen gaixotasunik edo akats fisikorik edo psikikorik ez duela egiaztatuko da, eta, horretarako, hori betetzen dela egiaztatzeko dagokion azterketa medikoa egingo da. Hautaketa-prozesu osoan zehar beharrezkoak diren proba mediko guztiak egin ahal izango dira baztertzeko koadro medikora egokitzen diren egiaztatzeko, prozedura osoa kontuan hartuta. Osasun-ziurtagiria aurkaratzen bada, izangaiak ontzat jotzen du ziurtagiria igortzeko oinarri gisa erabili diren txosten medikoak erreklamazioa aztertuko duten organoen eskura jartzea, baldin eta haren ohorerako eskubideari eragiten ez badiote.
5. Titulua, tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztatzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 43. artikulua arabera plazan sartzeko eskatzen dena.
6. Dagokion deialdian eskatutako berariazko betekizunen dokumentu bidezko justifikazioa.
7. NAN tamainako bi argazki.

b) Epea ez betetzea

Adierazitako epean eta ezinbesteko kasuetan salbu, proposatutako pertsonak deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa aurkezten ez badu, edo osasun-azterketatik ondorioztatzen bada baldintzaren bat ez duela edo eskatutako betekizunak betetzen ez dituela, horrek automatikoki baztertzea eragingo du. Hortaz, ezin izango da kontratatu eta jarduketa guztiak bertan behera geldituko dira, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaeran faltsukeria egin izanagatik merezi dezaketen erantzukizunaren kaltetan izan gabe. Kasu horretan, Presidentetzak bigarren postua duen pertsonaren izendapena proposatuko du, eta horrela hurrenez hurren, postua bete arte.

ZORTZIGARRENA. - KONTRATAZIOA

1. Kontratazioa

Aipatutako dokumentazioa aurkezteko epea igaro ondoren, Presidentetzak hautaketa-prozesua ebatziko du eta proposatutako pertsona kontratatuko du. Sinatuko den lan-kontratuan dagokion frogaldia jasoko da. Organo eskudunak proposamena onetsi ondoren, kontratatzeke proposatu den pertsonak kontratua formalizatu beharko du, jakinarazten zaion unetik hogeita hamar eguneko epean.

Nolanahi ere, frogaldian lan-kontratudun gisa lanpostuaz jabetuko da Amurrio Bideanek zehaztutako egunean edo egunetan.

Adierazitako epean kontratua sinatzen ez bada, justifikatutako arrazoirik gabe, kontratuari uko egiten diola ulertuko da, eta eskubide guztiak galduko ditu. Kasu horretan, Presidentetzak bigarren postua duen pertsonaren izendapena proposatuko du, eta horrela hurrenez hurren, postua bete arte.

Behin betiko kontratatzeke ezinbestekoa izango da frogaldia gainditzea.

2. Frogaldia

a) Aldez aurretik hautatutako pertsona hiru urte baino gehiagoz egon bada lanean Amurrio Bideaneko lanpostu berean, eta kudeatzaitzako arduradunak jardunari buruzko txosten positiboa egiten badu, baliozkotzat jo ahal izango da frogaldia.

b) Frogaldiaren edozein unetan izangaiaren kontratazioa bertan behera utz daiteke, izangaiak ez baditu gaitasun- edo egokitasun-baldintzak betetzen. Ildo horretan, kudeatzaitzaz dagokion proposamena helaraziko dio hautaketa-prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiari. Horrek, txostena kontuan hartuta, kontratazioa deuseztatu behar den edo ez erabakiko du, eta dagokion proposamena helaraziko dio Presidentetzari.

c) Izangaia lanean hasten ez bada, justifikatutako arrazoirik gabe, kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

d) Kontratazioa interesdunari jakinaraziko zaio eta iragarki-taulan, ALHAON eta Amurrio Bideaneko webgunean (<http://www.amurriobidean.org/>) argitaratuko da.

e) Izangaien behin betiko kontratua

Frogaldia bukatu ondoren, eta hura gaindituz gero, kontratua behin betikotzat joko da, eta ez da ALHAOn argitaratu beharko.

II. ENPLEGUA EGONKORTZEKO EZOHIKO PROZESUEN BERARIAZKO ARAUAK (LEHIAKETA)

BEDERATZIGARRENA.- HAUTAKETA-PROZEDURA

1. Izangaien hautaketa-prozedura

Izangaien hautaketa-prozedura txanda irekiko lehiaketa izango da, deialdiaren berariazko oinarrietan zehazten denaren arabera. Hautaketa-prozesuan frogaldia gainditzea ezar daiteke, deialdiaren berariazko oinarrietan zehazten denaren arabera.

2. Fase bakarra: Lehiaketa

a) Arau orokorrak.

Lehiaketa fasean azterketa egingo da eta eskaerak aurkezteko epean aurkeztutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira.

Merezimenduak lortzeko epemuga eskaerak aurkezteko epearen amaiera eguna izango da.

b) Fase horretan merezimenduak honela baloratuko dira:

b.1) Antzeko lanpostu funtzioaletan sektore publikoan emandako zerbitzuengatiko lan-esperientzia:

Orokorra (antzinatasuna plazan) eta berariazkoa (Amurrio Bideaneko postuko esperientzia): Sektore publikoan zerbitzuak eman izana, deialdiaren berariazko oinarrietan zehaztutako baldintza eta balorazioaren arabera, zerbitzu zibil edo

merkataritzako-zerbitzuen errentamendurako kontratuak, bekak eta praktika profesionalak salbu.

Berariazko esperientziari dagokionez, soilik 2015eko abenduaren 31tik aurrera emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan, 20/2021 legearen 6. xedapen gehigarrian xedatutakoa betez.

Esperientzia profesional orokorrerako soilik indarrean dagoen araudian sektore publikotzat hartzen diren erakundeetan emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan (bereziki Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 2. artikulua) eta organo eskudunak egindako egiaztagiri bidez egiaztatuko dira.

Ez dira kontuan hartuko esperientziari lotutako merezimenduak, honako hau berariaz aipatzen ez bada:

- Plazaren izendapena eta kategoria profesionala.
- Zerbitzuen hasiera- eta amaiera-data.
- Lanpostuaren zeregin nagusiak, kategoria adieraztea nahikoa ez bada.

Amurrio Bideanen emandako zerbitzuak alegatu egin behar dira eta ofizioz zenbatuko dira. Gainerako sektore publikoan emandako zerbitzuak alegatzeko, egiaztagiriaren kopia arrunta entregatu beharko da.

b.2) Beste merezimendu batzuk: Deialdiaren berariazko oinarrietan ezarritakoaren arabera baloratuko dira:

Titulazioak.

Prestakuntza-ikastaroak

3. Euskara profila egiaztatzea

a) Hautaketa-prozesuan lehiatzeko 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da.

b) Hizkuntza-eskakizunen baliokideak diren ziurtagiriak eta tituluak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena) eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena) zehazten dira.

HAMARGARRENA.- HAUTAKETA-PROZEDURA GARATZEA

1. Argitalpena. Onartutako eta/edo baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzen denean, merezimenduen behin behineko balorazioa egingo da, eskabidean alegatutako eta justifikatutako betekizunak eta merezimenduak kontuan hartuta. Ondoren, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikularekin bat, 10 egun balioduneko epea egongo da baloratu ez diren eta eskabidean alegatu eta justifikatu diren baldintzak eta merezimenduak zuzentzeko, behin behineko lehentasun-hurrenkera lortzeko. Epe hori ezin izango da inola ere erabili eskabidean alegatu ez diren merezimendu berriak gehitzeko.

Zuzenketa fasea bukatu ondoren, beste epe bat emango da behin behineko kalifikazioan puntuazio altuena lortu duen izangaiek alegatutako merezimenduak eta betekizunak egiaztatzeko, eskainitako plaza kopurua amaitu arte.

Inola ere ez dira baloratuko eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean alegatu ez diren merezimenduak.

2. Behin behineko kalifikazioen erreklamazioak. Oro har, epaimahaiak ebazpena argitaratzen duen egunetik bost egun balioduneko epea ezarriko da kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak zuzendu ondoren, Kalifikazio-epaimahaiak plaza lortu duten izangaien puntuazioaren arabera behin betiko zerrenda onetsiko du, eta iragarki-taulan eta Amurrio Bideaneko web-helbidean (www.amurriobidean.org) argitaratuko du.

3. Azken kalifikazioa eta lehentasun-hurrenkera.

a) Azken kalifikazioa lortzeko, lehiaketan (egiaztatutako merezimendu bakoitzeko puntuazioen batura) lortutako puntuazioak batuko dira, eta plazetarako izangaien lehentasun-hurrenkera zehaztuko da.

b) Gaur egun indarrean dagoen idazketa kontuan hartuta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.1 a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, eta gaitasun berbera izanez gero, emakumeei lehentasuna emango zaie sektore publikoko kidego, eskala, maila eta kategorietan, betiere emakumeak kopuru osoaren % 40 baino gutxiago badira, lanposturako beste izangaia neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu salbu (laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea), eta ezaugarriok sexuagatiko bereizketarik eragiten ez dutenean.

4. Berdinketa egonez gero, lehentasun-hurrenkera honako irizpide hauen arabera finkatuko da:

Lehenik eta behin, Amurrio Bidean lanean denbora gehien eman duen izangaia, deitzen den lanpostu berean; bigarrenik, Amurrio Bidean lanean denbora gehien eman duenak; hirugarrenik, sektore publikoan denbora gehien eman duenak; eta, azkenik, eta berdinketa-egoerak bere horretan jarraitzen badu, adinez helduagoa den pertsona.

HAMAIKAGARRENA.— LORTUTAKO KALIFIKAZIOAK

1. Epaimahaiak kalifikazioak iragarki-taulan eta Amurrio Bideanen webgunean (www.amurriobidean.org) argitaratuko ditu.

2. Hautatutako pertsonen zerrenda.

a) Hautaketa-prozesua osatzen duten merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak hautatutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, lortutako puntuazioaren arabera. Pertsona kopuruak ezin izango du plaza kopurua gainditu, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 32. artikuluan xedatutakoaren arabera; halaber, dagokion kontratazio-proposamena egingo du, eta, horretarako, zerrenda Presidentetzari bidaliko dio. Horrekin batera, agintaritza horri azken bileraren akta bidaliko zaio, non puntuazio-hurrenkeraren arabera jasoko diren prozesua gainditu duten eta iragarritako plaza-kopurua gainditu duten izangaiak, baldin eta plaza lortu duenetako bat ez bada hartaz jabetu edo ez badu lan-kontratua sinatu. Edonola ere, zerrenda horretan sartzeak ez dakar beste eskubide edo espektatibarik.

c) Lan-kontratudun finko izendatutako pertsonak kontratua sinatzean postua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badu, hutsik uzten duen plaza adjudikatu ahal izango da. Horretarako, Kalifikazio-epaimahaiak egindako izendapen-proposamen osagarria erabiliko da.

HAMABIGARRENA.- LAN-POLTSA EZ SORTZEA

Lehiaketa bidezko ezohiko egonkortze-prozesuak ez du lan-poltsarik sortuko.

HAMAHIRUGARRENA. - BUKAERAKO ARAUAK

Erabaki hau zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, ALHAOn argitaratu eta bi hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera. Deialdien eta auzitegien jardunaren ondoriozko administrazio-egintzak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

II. ERANSKINA

BERARIAZKO OINARRIAK**LEHENENGOA. - DEIALDIAREN XEDEA**

Deialdiaren xedea da Amurrio Bideaneko lan kontratudun langileen aurrekontu-plantillan hutsik dauden plazak jabetzan betetzea. Plaza horiek 2022ko ekitaldirako onetsitako lan eskaintza publikoaren barruan daude, enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuaren bidez, lehiaketa-sistemaren bidez:

PLAZA	KOP.	Azpitaldea	HE	Nahitaezkoa
Enpresetako teknikaria	1	A2	3	Bai

BIGARRENA. - BERARIAZKO OINARRIAK

Amurrio Bideanen langile lan-kontratudun finko gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdiaren hautaketa-prozesuko oinarri orokorretan xedatutakoa osatzen duten berariazko oinarriak adierazten dira. Oinarri horiek deialdia, hautaketa-prozedurak edo bertan zehazten diren sarbide-sistemak arautuko dituzte.

1.- BETEKIZUN OROKORRAK

Izangaiak oinarri orokorren Laugarren.1 xedapenean zehaztutako betekizunak bete beharko dituzte.

2.- FROGALDIA

Jarraian zehazten den plazaren hautaketa-prozesuan gehienez ere sei hilabeteko frogaldia egongo da, eta hautaketa-prozesuan puntuazio onena lortu duen izangaiak beteko du.

Frogaldian zehar postuari dagokion ordainsaria jasotzeko eta Gizarte Segurantzari alta emateko eskubidea izango dute.

Frogaldian zehar ebaluazio jarraia egingo da, eta gai edo ez gai kalifikatuko da; hortaz, gai izan beharko da hautaketa-prozesuaren fase hori gaingartzeko.

Plazaren funtzioei lotutako lanetan frogatutako gaitasuna baloratuko da.

Aldia gainditzen ez bada, frogaldiaren ebaluazioa jaso duen izangaiak ez gai kalifikazioa jasoko du, eta, hortaz, automatikoki hautaketa-prozesutik kanporatuko da eta lan-kontratudun izendatzeko izan ditzakeen eskubideak galduko ditu.

Frogaldia bukatzean, ebaluazioaz arduratzen den organoak izangaiaren gaitasunei eta baldintzei buruzko txostena egingo du eta txosten hori Kalifikazio-epaimahaiari bidaliko zaio. Epaimahaiak erabakiko du frogaldia gainditu den edo ez.

Hautatutako pertsonak aldez aurretik 3 urte baino gehiagoz egon bada lanean Amurrio Bideanen eta kudeatzailetzaren aldeko txostena jaso badu, frogaldia konbalidatu daiteke.

3.- DEITUTAKO PLAZA

Lehenengoa. - Deitutako plaza

Enpresetako teknikari plaza bat (1), derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna, A sailkapen-taldea, A2 azpitaldea.

Bigarrena. - Berariazko betekizunak

Titulazioa: Gradu unibertsitate-titulua edo baliokidea ekonomia, enpresa, aktuariotza eta finantza zientzietan, merkataritzako intendentea edo aktuarioa.

Derrigorrez euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea.

Hirugarrena. - Kalifikazio-epaimahaia.

Honela osatuko da:

Presidentetza: Amurrioko Udaleko karrerako funtzionario teknikari bat, Amurrio Bidean sozietate publikoa Amurrioko Udalaren menpe baitago.

Kideak:

- Amurrioko Udaleko edo Amurrio Bideaneko lau funtzionario edo langile finko.

Idazkaria: Amurrio Bideaneko langile lan-kontratudun finko bat.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesua.

Lehiaketa bidez egingo da hautaketa eta parte bakarra izango du:

Lehiaketan azterketa egingo da eta eskabidean izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira. Horretarako, merezimenduen baremoaren arabera bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio.

Bosgarrena. - Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

Lehiaketaren balorazioa emandako puntuak batuta zehaztuko da, honako baremo hauekin bat:

A) Esperientzia: gehienez ere 80 puntu.**a.1. Esperientzia orokorra:**

Esperientzia orokortzat hartuko da Sektore Publikoko edozein erakundetan, deialdia egin duen erakundea barne, enpresetako teknikari lanpostuetan edo baliokidean, A2 taldean, emandako zerbitzuengatik esperientzia, arrazoia edozein dela ere (funtzionarioa edo lan-kontrataduna).

Gehienez ere **60 puntu** emango dira, honako baremo honen arabera:

- Sektore publikoko edozein erakundetan, deialdia egin duen erakundea barne, enpresetako teknikari kategorian, azpieskala teknikoan, emandako zerbitzuengatik: 0,0274 puntu lan egin den egun bakoitzeko.

a.2. Berriazko esperientzia:

Gehienez ere **20 puntu** emango dira, modu espezifikoan, bereizian eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, deialdia egin duen erakundean dagozkion hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik emandako zerbitzuengatik, honako baremo honen arabera:

- Amurrio Bidean azpieskala teknikoan, enpresetako teknikaria kategorian, A2 azpitaldean emandako zerbitzuengatik, 0,00914 puntu lan egin den egun bakoitzeko.

b) Beste merezimendu batzuk. **Gehienez ere 20 puntu** emango dira, honako merezimendu hauen arabera:

b.1.- Deitutako plazarako eskatzen den prestakuntza akademikoari dagokionez maila bat (1) goragokoa den titulua izateagatik, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalera egokitutako titulazioak badira: **10 puntu**.

- Unibertsitate masterra eta/edo doktoregoa, edo baliokidea (MECES 3. eta 4. mailak)

b.2.- Plazarako eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (betekizun gisa egiaztatu ez dena), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalera egokitutako titulazioak badira: **7,5 puntu**

- Lizentziatura, Diplomatura edo Graduoko titulua (MECES 2. maila)

b.3.- Deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia duten prestakuntza-ikastaroen ordu kopuruagatik, erakunde ofizialek eman edo homologatu badute (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, elkargo profesionalak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak): 0,1 puntu ordu bakoitzeko; gehienez ere **20 puntu**.